

## Egur lehortegia Txilera

Tolosar batzuk bidaliko dute ▶ 3



JOSEBA OTAEGI ▶ AIZKOLARIA

## «Irabaztea lortuz gero, niretzat asko izango zen»

**LEHIA** ▶ Larunbatean gazteen mailako Urrezko Aizkora jokatuko du zizurkildarrak

**URTEA** ▶ 'Igeltza'-rekin batera jokatuko du Azpeitian; urtebete darama txapelketetan ▶ 4



Joseba Otaegi zizurkildarrak Urrezko Aizkora irabazteko esperantza dauka, baina «konfiatu gabe». I.GARCIA

JAIONE ASTIBIA



## Temperaturak -9°Cra jaitsi ziren herenegun gauean

**LEITZA** ▶ Arbillagako pinudiko txoko ospelean izan zen; herrigunean -7°C izan ziren; aspaldi egin duen hotzik handiena izan da ▶ 7

LEIRE MONTES



## Txomin Txuekaren argazki erakusketa, amaitzear

**TOLOSA** ▶ Chiapasen jasotako irudiak bildu ditu 'Lurraren kolorea' erakusketan; larunbata arte ikus daitezke Aranburun ▶ 2

**AMEZKETA** ▶

### Korrikaren aldeko ekitaldiak eratu dituzte

Bihar, Joxe Leon Otañoren hitzaldia ▶ 5

**IBARRA** ▶

### 4,9 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2005erako

Aurrekontuaren diru gehiena Gizarte Zerbitzuetarako erabiliko dute ▶ 6



I.TERRADILLOS

**ARESO** ▶

### Bertako telebistak babestea eskatu dute

Euskarazkoak lekuri gabe utzi dituzte ▶ 7

## ERAKUSKETA ▶



**Indigenak.** Askapen Nazionalako Armada Zapatistaren (EZLN) aldeko indigenak, herrixka batean. L. MONTES



**Bitzita lapurtua.** «Catarina amona, Zenaida Perez eta Efrain Gomez bilobekin, Acteal herrian. Zenaida Perezek 6 urte zituen gurasoak eta sei anai-arreben artean hiru hil zizkiotenean, eta berari tiroa buruan egin eta itxu utzi zutenean. Efrain Gomezek 4 urte zituen bere ama hil zutenean eta tiro batez masalezurra txikitu ziotenean; horregatik, papilekin bakarrik elikatzen da, ezin baitu ezer solidorik jan». L. MONTES



**Hiritan.** Ume indigena elbarritu bat, hiriko kaleetan galduta. L. MONTES



**Espetxean.** «Espetxeetako Nazioarteko Behatokiak behin eta berriro salatu ditu torturaren erabilera eta bizi baldintzen egoera txarrak Mexikoko espetxeetan». L. MONTES



**Askapen Nazionalako Armada Zapatista (EZLN).** Askapen Nazionalako Armada Zapatistako (EZLN) kideak, herrixka batean. L. M.

## Lurraren kolorea, zuri-beltzez

Txomin Txueka argazkiliariaren 'Lurraren kolorea' erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian; Chiapaseko irudiek «Mexikoren kolorerik goibelenak» islatzen dituzte

### LEIRE MONTES

Lurraren kolorea zuri-beltza da Chiapasen. Hala jaso du, behintzat, Txomin Txueka argazkiliari getariarren kamararen objektiboak. Mexikoko eskualde horretan ateratako zuri-beltzeko argazkiekin *Lurraren kolorea* izeneko erakusketa osatu du Txuekak, eta egunotan Aranburu Jauregian dago ikusgai —hilaren 26a, larunbata, da bilduma bisitatze-ko azken eguna—. Chiapaseko «iheslariei eta

askatasunaren aldeko borrokalari» eskaini nahi izan die bere lana Txuekak. «Izan ere, jende honek kolore berezia ematen dio bere herrialdeari, Mexiko erromantikoaren edozein ezaugarrietatik oso urrun dagoen kutsua».

Bidegabekeriak salatzen ditu maiz getariarrak bere lanetan. Besteak beste, Bolivian edo Palestinako errefuxiatu zelaietan izan da. Chiapaseko estatua 2001eko martxoan joan zen: paramilitarren biktimak, preso zapatistak, eta Askapen

Nazionalako Armada Zapatistak (EZLN) La Realidad herrixkan zuen komando sekretuariaren egoitza bisitatu zituen. 1994az geroztik zabalik dagoen gatazka islatzen dute haren argazkiek, Mexikoko politikaren zauria. Egilearen beraren esanetan, «irudiok aginte politikoei sortutako injustiziaren errealitate gordina erakusten dutela uste dut».

Gatazkaren biktimei «aurpegi jartzen» die getariarrak. EZLNk garaipen batzuk lortu ditu; besteak beste, bere orde-

kariet parlamentuetan hitz egiteko baimena dute, eta amnistia agindu zaie preso askori. Baina ahots askok optimismoa «oraindik lekuz kanpoko» dela diote, tinko eta ozenki, indigena asko ihesi dabiltzalako gaur egun. Horixe jaso nahi dute Txuekaren argazkiek: «Aurpegi hauetako batzuk maskaren atzean ezkututzen dira. Zulo txikietatik nabaritzen ditugu begira ari diren begiak. Eta begi hauetan ikusten ditugu Mexikoren kolorerik goibelenak».

### DATUAK ▶



**Izenburua.** *Lurraren kolorea*.  
**Egilea.** Txomin Txueka argazkilaria (Getaria, 1960).  
**Gaia.** Chiapasen 2001ean ateratako argazkiak, zuri-beltzean.  
**Lekua.** Aranburu Jauregia.  
**Egunak.** Hilaren 26a arte, larunbata.  
**Ordutegia.** 17:30etik 20:30era.

ANTZERKIA ▶

**'Ezekiel' lanerako sarrerak salgai Kultur Etxean**

Antzerkiola Imaginarioa antzerki taldeak eta Sagarroi musika taldeak *Ezekiel* antzezlan musikatu eskainiko dute etzi 22:30ean Leidorren, Korrika Kulturaren barruan. Sarrerak salgai daude Kultur Etxean 9 eurotan. Ander Lipus eta Iñigo Muguruza dira zuzendariak eta testua Martxel Mariskalena.

HEZKUNTZA ▶

**Haur Eskolarako aurrematrikula martxan da**

Udalaren Haur Eskolak 2005-06 ikasturterako aurrematrikula martxan jarri du. Hamabi orduko eskaintza da, 07:30etik 19:30era eta lau txanda daude: egun erdia goizez —07:30-12:00—, egun erdia goizez bazkaria barne —07:30-13:30—, egun erdia arratsaldez —14:00-19:30— eta egun osoa —07:30-19:30—. Hala ere, zortzi ordu baino gehiago ez edukitzea gomendatzen dute. Aurrematrikula epea martxoaren 4a arte dago zabalik udaletxean Euskara eta Hezkuntza zerbitzuan (943 69 74 53) edo Haur Eskolan bertan. Bera-zubin (943 67 36 98).

HEZKUNTZA ▶

**Soldadura ikastaroak Peñascalen**

Soldadura ikastaroak antolatu ditu Peñascal Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Hobetuz programak %100ean lagunduta, doan izango dira: soldadura elektrodoa (otsaila-martxoa), soldadura MAG/MIG (apirila-maiatza) eta soldadura MIG-YIG (ekaina-uztaila). Informazioa eta izen-ematea: 943 676161.

GIZARTEA ▶

**Egur lehortegia, bidean**

Txileko Curarrehue herriko maputxeei laguntzeko egur lehortegia bidali behar dute tolosar batzuk laster



Hau da Curarrehueko zerrategiaren egitura, eraikitze lanen hasieran. HITZA

JOXEMI SAIZAR

**T**olosa eta maputxe herriaren arteko harremana aspaldidanik dator. Eskolapioak izan dira erlazio hori bideratu dutenak urte askotan. Iñaki Arriola aita eskolapio tolosarra Curarrehue (Txile) herrian bizi da, hango maputxe komunitatean lanean. Martin Gondra eta Jose Antonio Frias ere Txilen bizi da gaur egun. Tolosan bizi izandako Latasa, Hierro eta beste eskolapio batzuk ere han dira.

Tolosako enpresa eta lagun batzuk —Gipuzkoako beste batzuekin batera— duela sei urte hasi ziren lurralde hartara bere laguntza bideratzen. Makineria bidali izan dute eta harremana mantendu dute, zerrategi bat montatuz. Azkenaldian egur lehorgailu baten beharra ikusi eta hori lortzera bideratu dituzte bere ahalegin guztiak.

Duela gutxi Iñaki Arriola

bera izan da Tolosan laguntzak bilatzen eta proiektu honen berri eman zion HITZARI. «Orain pulgadako 1.200 peso ordaintzen dute; egur lehorra izanez gero 6.000 edo 8.000 peso lortuko dute. Indigenek lehorgailua ordaindu eta diru gehiago irabaziko dute», azaltzen zuen apaiz eskolapioak.

**Martxoaren hasieran**

Egur lehorgailua Tolosako Gorostidi tallerrean eta Urto kaldererian eta Kataluniako Sole enpresan ari dira prestatzen. Martxoaren hasieran itsasuntziz bidaliko dute Bilbotik Valparaisora. Maiatzean Curarrehuen montatuko dute mekaniko tolosar batzuk eta sanjoanetarako martxan egotea espero dute.

Proiektu honen aurrekontua garrantzitsua da, 70.000 euro baino gehiagokoa, bidaiak, gestioak, malleguak eta beste

gastu orokorrak kontatu gabe. Harrera ona izan du gure eskualdean eta edozeinek bere diru laguntza eman dezake Banco Santander Central Hispanon eta Kutxan horretarako *Tolosa egur lehorgailu maputxeara* izenez ireki dituzten kontu korronte berezietan.

Proiektua finantzatzeko beste ekimen bat ere burutu dute tolosar hauek. Lau pertsonaia ospetsuk bere objektu batzuk enkantean jartzeko doan ematea lortu dute: *El Juli* toreatzailerak eta Ainhoa Arteta soprano tolosarrak jantziak, Abraham Olano txirridulari anoetarrak bere azken Tourrean erabili zuen maillota eta Ricardo Ugarte eskulturgileak bi arte-lan. Objektu hauek San Franzisko ibiltokiko Kutxako sukurtsalean jarriko dira ikusgai eta Internetez egingo da enkantea. Lortutako dirua maputxeentzako egur lehorgailua finantzatzeko erabiliko dute.



IÑAKI ARRIOLA  
APAIZ ESKOLAPIOA

«Orain pulgadako 1.200 peso ordaintzen dute; egur lehorra 6.000 edo 8.000 peso ordainduko dute»

**GNEN proiektua**

Andeetako maputxe komunitatean ari dira lanean, Santiago hiriburutik 1.000 kilometro hegoaldera. Bizirauteko elkartasuna, ezagutza eta maitasuna ematen diete. Guztira milioi bat maputxe gelditzen dira oraindik. Horietatik erdiak hiriburura joan behar izan dute bizitzera, bere nortasuna galduz. Beste erdia Andeetan bizi da, bere kultura, arraza eta ohi-turak mantenduz.

Curarrehue 5.500 biztaneko komuna da. Gipuzkoaren bi herenen neurriko lurralde batean. GNEN proiektuak azpiegiturako hutsune batzuei erantzuna ematen die. Hezkuntzan haurrentzako etxea, baliabiderik ez duten 150 haurrentzako barne-tegia, oinarrizko haur eskola eta lizeoa dira helburuak. Kultur alorrean, maputxeen kultura berreskuratzea eta mantentzea dute helburu. Eta produkzio mailan, negutegiak, ganaderitza eta egurren ustiapena lantzen dituzte.

Zerrategiari esker eskolak eta etxeak egon dituzte, zurgindegi eskola sortu dute eta zuzeneko salerosketa dute indigenekin. Egur lehorra behar dute eta lehorgailua aurrerapauso handia litzateke prozesua azkartzeko. ◀

iragarki laburrak ▶



**Andoain.** 75m2-ko etxebizitza kanpoaldera begira, igogailua, eguzkitsua.  
**Belautza.** 1.060 m2-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.  
**Belautza.** 225 m2-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.  
**Donostia.** 104 metro karratuko

etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berriua.  
**Donostia.** Rodil zeharkalean, apartamentua salgai. Berriua; kanpoaldera.  
**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen 3 solairuko baseria salgai.  
**Ibarra.** 75 m2-ko pabilioia eta 2.500 m2-ko lur saila salgai. Nekazal

ustiapenerako egokia.  
**Lizartza.** 14.000 metro karratuko pabilioak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m2-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.  
**Tolosa.** Agintari kalean 75 metro karratuko eraikuntza berriko etxea salgai.  
**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 155 m2-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berrikoak.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskitsean, 110 m2-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.  
**Berritzeko premia.**  
**Tolosa.** Zabalaretan 135 m2-ko etxebizitza, trastelekua, garaje bikoitza aukeran.  
**Tolosa.** Lokal komertzialak, salmanten edota alokairuan (Gorosabel, Iurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

## ZIZURKIL ▶

Tasak gutxitzeko  
edo ez ordaintzeko  
epea irekita

Ur eta zaborren tasen ez ordaintzea edo gutxitzeko eskaerak aurkezteko epea irekita dago eta datorren ostira-lean amaitzen da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da: familiako kide guztien NANaren fotokopia, errolda eta elkarbizitza ziurtagiria, familiako kide guztien diru sarreren ziurtagiria eta Foru Haziendak emandako ondasun agiriak. Informazio gehiago udal bulegoetan edo 943 691 012 eta 943 693 066 telefonoetan.

## ZIZURKIL ▶

Matrikulatzeko  
epea irekita  
Otaño eskolan

Hilaren 25a arte irekita dago matrikulatzeko epea Pedro Mari Otaño herri eskolan. Bulego ordutegia goizean 9:30etik 13:00etara eta arratsaldean, berriz, 15:00etatik 17:00etara da. Informazio gehiagorako 943 69 14 78 telefonora deitu daiteke.

## ASTEASU ▶

Korrika 14ren  
kilometro bat  
erosi du Udalak

Asteasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaz Korrika 14 ekitaldiaren kilometro bat erosi du Asteasuko Udalak. Kilometroaren kostua 320 eurokoa da.

## VILLABONA ▶

Gurasoei  
zuzendutako  
hitzaldia Gurean

Erniobeia Gurasoen Elkarteak biharko hitzaldia antolatu du gurasoei zuzenduta. Gaia *Gurasoen heziketarako estiloak* izango da eta hizlaria Francisco Amiama. Gurea aretoko erakusgelan izango da 18:00etan.

## JOSEBA OTAEGI ▶ AIZKOLARIA



I. GARCIA

«Irabaztea lortuz  
gero, niretzat  
asko izango zen»

Larunbatean jokatu du Azpeitian, Joseba Otaegi zizurkildarrak gazteen mailako Urrezko Aizkoraren finala

IMANOL GARCIA

Joseba Otaegi gazte zizurkildarrak asteburu honetan du bere kirol ibilbidearen hitzordu nagusia. 21 urteko aizkolaria larunbatean jokatu du Azpeitian kiroldegian Urrezko Aizkoraren finala gazteen mailan, 22:30etik aurrera. Arkaitz Iriarte *Igertza* urrestildarra da bere bikotea.

**Nolatan hasi zinen aizkoran?** Zizurkilen, festetan, beti ateratzen nintzen txingatan edo harri jasotzen. Eta komentatu ziguten beste zerbait egiteko edo. Betidanik aizkora gustuko eta herriak erosi zizkigun bi aizkora eta beste bat eta ni hasi ginen aizkorarekin. Atera ginen festetan eta gero neguan

tarteka aritzen nintzen eta harri sartzen hasi zitzaidan. Gero, aitaren lagun bat, Nemesio Agirre, aizkolaria izandakorekin saio batzuk egin eta hark jarraitzeko animatu zidan. **Badirudi herri kirolak gustatzen zaizkizula.**

Bai, gustuko ditut. Familian beti izan da zaletasuna. Esaterako, nire aitaren familiako bat harri-jasotzaile izan da. Asko animatzen naute.

**Zein mailatan zaude?**

Urtebete daramat aizkoran eta hasten den guztia hirugarren mailan hasten da. Uztaile edo abuztu inguruan jokatu da Euskal Herriko hirugarren mailako Txapelketa eta hor lehenengo bi postuetan gelditu behar duzu bigarren mailara igotzeko. Aurreko urtean atera nintzen txapelketan eta desastre egin nuen.

**Urrezko Aizkoraren finalerako ibilbidea nolakoa izan da?** *Igertza*rekin jarri ninduten bikote, agian hirugarren mailako txapelketa gaizki egin nuelako eta *Igertza* onenetakoa delako.

Erraz aritu gara Urrezko Aizkoran: orain arte puntu bakarra galdu dugu. Banekien hirugarren mailako txapelketan eman nuen maila baino gehiago eman nezakeela, baina ez nuen espero orain arteko maila ematea. Serio hartu dugu lehiaketa. Ilusio handiarekin aritu gara, oso garrantzitsua delako guretzat eta udara aldera eskaparatze ona delako.

**Finalean irabazteko esperantzarekin, beraz.**

Zubiaga eta Rodriguezen kontra daukagu eta hauen aurka jokatu genuen eta 15 eta 2 irabazi genion. Beraz, esperantza bai, baina ezin gara konfiatu. Egurra nolakoa ateratzen den ere ikusi behar da.

**Urtebete aizkoran eta horrelako txapelketa bat irabazteko ez da gutxi izango, ezta?**

Irabaztea lortuz gero, niretzat, behintzat, asko izango zen.

**Nolako entrenamenduak egiten dituzu?**

Normalean egin ditugu astean bina saio aizkoran eta gero fondo pixkat eta pesak. Gero, azkenaldian, aizkora gehiago egin dugu, astean hiru saio.

**Aizkoran leku bat egitea zaila izango da. Asko exijitzen du?**

Aizkora ez da atletismoa bezala, txapelketa nagusi baterako urte guztian prestatzen aritzen zarela. Aizkorak, berriz, dauka Urrezko Aizkora, gero bikotea, gero erakustaldiak. Prestatzaileak berak esaten du zaila dela kirol honetan prestaketa neurtu bat eramateko. Aparte, teknikaren garrantzia ikaragarria. Nik neronek ikusten dut zenbat eta gehiago ikasi, konpurtatzen naiz orduan eta gutxiago dakidala.

## ANOETA ▶

Alkartasunak  
2004 urteko  
balantzea  
egin berri du

Biltoki berriaren inaugurazioa, urteko ekitaldirik garrantzitsuenak

I. GARCIA

Alkartasuna Biltokiak jubilatuen elkarteak urteko asblada egin berri du. Bertan 2004ko memoria eta aurrekontuak aurkeztu ziren. Herriko jaietan egindako ekitaldietan parte hartu zuten, esaterako toka jokoa Korpusko jaietan eta sanjoanetan. Iruran egindako familiarteko ibilaldian parte hartu zuten eta baita Gipuzkoa mailan Lazkaon egin zen ibilaldi neurtuan ere. Urnietan egiten den eskualdeko mahai txapelketan ere parte hartu zuten Alkartasuneko zenbait kidek.

Aurreko urtean guztira hiru irteera egin zituzten: Santillana del Mar, Azagra eta Nafarroako Erriberara. 14. urteurrena ospatu zuten eta 92 pertsona bildu ziren bazkaltzen Anoetako Ikastolan. Bestalde, garrantzi handiena izan zuen ekitaldia eta «historiarako geldituko dena», Manuel Odriozola lehendakariaren hitzetan, Biltoki berriaren inaugurazioa izan zen, pasatu den urrian. Txistor jate batzuk ere izan dira urtean zehar eta Kutxaren bitartez dozena erdi bat hitzaldi antolatu dituzte. Gabonetako loterian 2.400 euro (400.000 pezeta) inguru jokatu zituzten. Ondo baloratu dute, beraz, pasatu den urtean egindako ekintzak.

Aurrekontuari dagokionez, 2004. urtea 2.561,95 eurorekin hasi zuten Alkartasunekoek eta 2.882,75 eurorrenkin bukatu dute. Gastatutako dirua 6.458,30 eurokoa izan da eta diru sarrerak 6.676 eurokoak. Anoetako Udalak 1.446,95 euroko diru laguntza onartu du, baina oraindik ez dute kopurua elkarteak kontuan sartu.

Bestalde, 2005. urterako ikastaroak antolatzeko asmoa dute, tartean gimnasia. Bestalde, laster bingo jokoa martxan jarriko dute Biltokian. Azkenik, Nagusilanen —edadetuek osatutako boluntario taldea— inguruan hitzaldiren bat antolatzeko asmoa dute.

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
IKAS KOMUNITATEA  
**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**  
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkontza.net

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

# Korrikaren aldeko ekitaldiak antolatu dituzte herrian

Bihar Joxe Leon Otaño AEKko langilearen hitzaldia eratu du herriko Korrika batzordeak, 20:00etan gela polibalentean

NOELIA LATABURU

Bi urtez behin AEKk (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) euskararen alde antolatzen duen lasterketak 14. edizioa beteko du aurten. Orreagatik martxoaren 10ean abiatu eta 2.350 kilometro egin ondoren Bilbora iritsiko da martxoaren 20an, Tolosaldeko eta Leitzaldeko eskualdeetatik igaro ostean.

Korrikaren izpiritua Amezketan ere barreiatu nahi izan dute. Hori dela eta, Amezketako Korrika Batzordeak ekitaldi ezberdinak antolatu ditu datozen egunetarako herrian bertan. Horieta lehena biharkoa izango da. Arratsaldeko 20:00etan aspalditik AEKn lan egiten duen Joxe Leon Otaño hitzaldia emango du, 20:00etan gela polibalentean. Otañoekin batera, gonbidatu berezi eta ezagunak izango direla iragarri du batzordeak.

Hurrengo ekitaldia, berri, martxoaren 13an egingo den hamaiketako izango da. Honenkin dirua bilduko da Korrika laguntzeko. Bi egun beranduego, martxoaren 15ean hain zuzen ere, Korrika Txikia antolatuko da, herriko korrikalari txiki eta handientzat.

Dagoeneko hiru bilera egin dituzte batzordeko kideek, baina deialdia luzatu dute hemendik aurrera egingo diren etaraino azaldu nahiko balu. Korrika behar bezala antolatzeko talde handia behar dela azaldu dute batzordeko kideek. Amezketan ere bazen lanerako prest zegoen jendea, eta «Korrikari zerbait lagundu asmoz», Korrika Batzordea sortu zuten herrian. Aipatu batzorde honen egitekoak, nagusiki, bi dira. Batetik, herriko Korrikaren zein AEKren berri zabaltzea —horretarako zenbait ekintza antolatuz— eta, bestetik, ahal den neurrian Korrikarako diru bilketan laguntzea.

## Korrikaren jatorria

Korrika duela zenbait urte sortutako ekimena izan zen, euskara defendatu helburuz. Eus-

14.  
**KORRIKA** *aek*  
Euskal Herria euskalduntzen



ORREAGA-BILBO'05

Hauxe izango da aurtengo Korrikaren logotipo berria. HITZA

kal Herria osoan egiten den euskararen aldeko lasterketa da Korrika, beraz eta aurtengoa 14. edizioa du. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu gehienbat.

AEK zer den ez dakienik ere izango da ziurrenik. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea helduen euskara irakaskuntzan diharduen erakundea da. Amezketan ere Korrikari laguntzeko batzordea antolatu duten bezalaxe, Euskal Herria osoko beste hainbat herri ere eredu berbera hartu dute gure hizkuntzaren alde bat eginez.

## KORRIKA ▶

Euskararen aldeko lasterketa honetan Amezketako Korrika Batzordeak ere bere laguntza luzatu nahi du herrian ekitaldia ezberdinak prestatuz.

## EKITALDIAK

**Otsailak 24.** AEKn lan egiten duen Joxe Leon Otaño hitzaldia eskainiko du 20:00etan gela polibalentean.

**Martxoak 13.** Hamaiketako herriko Korrikarako dirua biltzeko.

**Martxoak 15.** Korrika Txikia antolatu dute Amezketan.

SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA

KALITATEZKO D EREDUA IRAKASKUNTZA

SAMANIEGO IKASTETEA

TOLUSA

✓ HAUER HEZKUNTZA

✓ LEHEN HEZKUNTZA

✓ DBH

✓ BATXILERGOAK

✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63

943 65 13 87

ALEGIA ▶

## Eskulan tailerrean izena emateko azken eguna

Alegiako Kultur Etxean eskulanak egiteko ikastaroa antolatu dute. Bertan izena emateko epea astebete gehiago luzatu zuten eta gaur izango da azken eguna. Kuota 36 eurokoa izango da. Taldeak mugatuak dira eta dagoeneko bi osatu dira, Martxoan hasi eta maiatza bitarte, 22 orduko iraupena izango du. Orduetara finkatzeko dago.

IKAZTEGIETA ▶

## Leire Olaberria Bordeleko pistan txapeldun

Leire Olaberria Bordeleko belodromoan aurreko asteburuan korritu zen Neguko Abiadura Txapelketan irabazle suertatu zen. Ikaztegieta txirrindulariak Bruesa taldearekin lortu zuen garaipena larunbatean. Bere taldekidea den Lur Estebanek ere garaipena eskuratu zuen junior mailan.

ALTZO ▶

## Euskal dantza, eskola orduz kanpo

Altzoko ume eta gaztetxoek aukera izango dute berriro ostiral arratsaldeetan dantzan ikasteko, izan ere, eskola orduetatik at, jarduera hau ere eskainiko da aste honetarik aurrera. Oraingoan, Eider Epelde Ibarra Alurr dantza taldeko partaidea izango da irakaslea.

GUTUN@K ▶



## Alegiar guztioi mila esker!

Ikaragarria izan da, benetan ederra. San Joan kalearen inguruan eman den galdeketa prozesua eta ekimena harrotzeko modukoa izan da eta gauza asko erakutsi dizkigu.

Hasieran, Parte-hartze Batzordean galdeketa burutzeko mandatu jaso genuenean ilusio handiz hartu genuen, baina, orain aitortu dezakegu, kezka handiarekin ere bai. Jendeak ez ote zuen erantzungo beldur ginen. Errazkeria, ohitura falta, garrantzia ez ematea... arrazoi asko bilatzen genituen kezkatzeko. Hala ere gure ahalmen urriekin saiatu ginen jendeari helarazten ekimenaren garrantzia, guretzat galdera bera baino harago zihonana. Eta jendeak erantzun du, eta nola gainera!

Bozketa mahaia jarri eta berehala betetzen hasi zen papertxoak sartzeko kutxa. Klase guztietako, adin guztietako, pentsaera guztietako jendea inguratu zuen bere iritzia ematera. Kalean nabaritzen zen gaiaren inguruko eztabaida, parte hartzeko aukeraren poza eta bakoitza baliagari sentitzearen sentsazioa.

Ondo aterata da, oso ondo, eta honek erakusten du herritarrei bideak jarritz gero prest dagoela eztabaidetan, erabakietan parte hartzeko.

Lehen balorazioa beraz balaikorra da. Alegian funtzionamendua, Batzordeak... irekiak dira, eta gora beherekin baina horrela egiten dugu aurrera. Askotan, gai honetan bezela, polikiagi joatea eskatzen du, baina bidea egitea bera da interesgarri eta betegarria. Honelako ekimenek bidea zuzena dela erakusten dute, honek jarraitzea animatzen gaitu.

FELIX IRAZUSTABARRENA (PARTE-HARTZE BATZORDEA) ▶ ALEGIA

UZTURPE IKASTOLA

IBARRA KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA ESKAINTZEN

- Uzturpe udal haur eskola. 0-3 urte
- Uzturpe ikastola. 3-16 urte
- Txontxo udal ludoteka. 2-8 urte

MATRIKULA EPEA

OTSAILAK 14tik 25era

Deitu eta bisita antolatuko dugu (9:00-12:30 / 14:30-18:00)

IBARRAKO UDALA

Egialde, 2 • IBARRA • Tel.: 943671299 • ibarra@ikastola.net

## IBARRA ▶ GIZARTEA

# 4,9 milioi euroko aurrekontua onartu da 2005erako

Handiagoak izan dira irabaziak aurten eta aurrekontua igo da; Gizarte Zerbitzuetarako erabiliko da diru gehiena

IÑIGO TERRADILLOS

2005. urterako 4.962.000 euroko aurrekontua onartu du Ibarako Udalak.

Beste urteetan zegoenarekin konparatuta nabaria da zenbatekoa handitu dela aurten. Izan ere, Udaletik adierazi dutenez Apatia Errekan egiten ari diren obrek ingresoak gehitzea ekarri dute eta beraz diru gehiago izanda inbertsio gehiago eta handiagoak egiteko aukera egon da aurten.

2005ean egingo diren inbertsioen artean, aurreko agintalditik finkatua zegoen etxebizitzaren tutelatua egiteko proiektua nabarmentzen da besteak beste. Horrela, Udalak Azkuen hirurteko etxebizitzaren hartuko dituen behar dutenen eskura egongo direlarik, eta gainera eguneko zentroa egiteko asmoa dagoela ere jakinarazi du. Departamentuen arabera, Gizarte Zerbitzuetako departamentuan inbertituko da diru gehien, 625.409 euro hain zuzen.

Kirol arloan ere, egingo den inbertsioa aipatzekoa da; batez ere, kiroldegiaren mantenua eta konponketari dagokion kostua da hemen kontuan hartu beharrekoa. 375.533 euro dira departamentu honetarako.

Gainerako departamentuei dagokionez, honela banatu da eskainiko zaien diru kopurua: 207.025 euro kultura arloan, 256.265 euro hezkuntza arlorako, 180.750 euro obrak eta zerbitzuen atalerako eta 138.750 euro euskararen alorrera zuzenduko dira.



Ibarra udaletxea. I. TERRADILLOS

## 2005EKO INBERTSIOAK ▶

Gaiak	Kopurua eurotan
Babes Ofizialeko Etxeetarako lurren erosketa	77.576
Izaskungo argiak berritzea	24.000
Haur parkeak egokitzea	22.475
Euskal Herria kaleko saneamendua sarearen erreforma	158.000
San Ignazio auzoaren hiriratzeko obrak	225.000
Otarreaga kalerako oinezkoentzako sarbidea	53.000
Euskal Herria kaleko espaloien bukkuntza	139.000
San Ignazio auzoko zubiaren birmoldaketa	21.193
Emeterio Arrese kalea hiriratzeko	587.162
Hirigintza proiektuaren idazketa	42.000
Azkuero etxebizitzaren erosketa	137.250
Eguneko zentroaren eraikuntza	154.808
Kiroldegi jokalekuaren birmoldaketa	90.000
Lorezaintzarako makinak erostea	10.305
Zabor edukiontzia lurperatzea	90.000
Bizikleta estatioak eta beste ekipa batzuk erostea	12.000
Zerbitzu eta obretarako makinak erostea	12.000
Azkuero etxebizitzaren ekipamendua	21.000
Informatika ekipoa erostea kultur orokorretarako	5.000
Informatika ekipoa erostea kultur zerbitzuetarako	4.500
Bibliografia-fondoak erostea	10.500
Ikus-entzuteko materiala erostea liburutegia	4.000
Hiri antolamenduko arauen berrartzeak	59.600
<b>DENERA</b>	<b>1.970.535</b>

## IBARRA ▶ POLITIKA

## Udalaren jarrera salatu du Askatasunak

Torturaren aurkako mural bat kentzea eta ideiak ezin adierazi ahal izatea salatu dute

I. TERRADILLOS

Ibarako Zaldune 14an pertsona batzuk mural bat egin zuten; bertan polizia bat agertzen zen gazte bat pareta kontra zuela eta *Errepresioa ez da bidea esaldia* ondoan. Ibarako Askatasunak adierazi eta salatu nahi izan duenez Erztantzari deitu zitzaion horren berri emateko bizilagunak antza ez baitzeuden konforme.

Bestalde, Udalaren jarrera ere salatu nahi izan dute, «ahoa betetzen baitute bake hitzekin, baina gero beti bezala gure herria zantzen duen

estatuen morroiak bihurtzen dira beraien ekintzekin». Batetik, Udalaren *ETA No-ren* banderola, eta bestetik, aipatutako muralaren ezabatzea litrateke ekintza horiek. «Dirudenez ez zaie ondo iruditzen tortura salatzea; agian PSOE eta PPko zinegotzien aholkua jarraituz eman dute pauso hau, beraiekin eroso sentitzen jarraitzeko» azaldu dute. «Baina zer espero dezakegu batzar bat eramaten ez dakien pertsona batetaz?; guk gure herriari gertatzen diren eraso guztiak salatzen jarraituko dugun» gehitzen dute.

## IBARRA ▶

## Ipuin kontalari saioa bihar Kultur Etxean

Bihar Ibarako Benito Izagurre kultur etxean ipuin kontalari saioa izango da ikusgai. Saioa Idoia Sanchezek zuzenduko du eta 17:30ean izango da. Herriko txikiak eta gaztetxoak animatu nahi dituzte saio honetara joateko. Ekitaldi hau Ibarako Udal Liburutegiak antolatuko du.

## IBARRALDEA ▶

## KZgunekak tutorearen bisita izango du

KZgunekak gaur izango du tutorearen bisita 16:00etatik 20:00etara. Bestalde, gaur, 16:00etatik 18:00etara Kutxanet ikastaroa eskainiko dute, internet bidez kontu laburpenak, mugimenduak... nola kontsultatu daitezkeen ikasi ahaliko da. Orexan, berriz, bihar goizean izango da tutorearen bisita 9:00etatik 13:00etara hain zuzen. Orexan KZgunekak erabili ahal izateko goizetan Uli Mankomunitatean eskatu behar da giltza eta arratsaldeetan taberna irekita dagoenean egongo da KZgunekak ere zabalik.

## IBARRA ▶

## Gaur batzar informatiboa plazan

Ibarrara herri ekimenak gaurko 20:00etan batzar berezi bat eskatu du Ibarako udalean, baina hau konfirmatzeko dagoenez, lehenago 19:45ean plazan egingo dute batzar informatiboa. Herri ekimenekoek herritar guztiak egiten diete deia batzar honetara azaltzeko eta bertan parte hartzeko.

# txokoa<sup>lagunen</sup>

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ KORRIKA KULTURALAK ANTOLATUTAKO 'EZEKIEL' antzezlanak, otsailaren 25ean Tolosako Leidor Zinemaren 22:30ean ikusteko bina sarreren harpidedun laguntzaile irabazleak:

- IOSU LARRAURI MUÑOZA (TOLOSA)
- BEGOÑA BUITRAGO ORTEGA (TOLOSA)
- IÑAKI LARREA TAPIA (IKAZTEGIETA)

korrika<sup>ni ere bai</sup>  
Euskal Herria euskaraz laguntzen



ARESO ▶ GIZARTEA

# Bertako telebistak babesteko eskaria egin du Udalak

Banaketa teknikoaren ondorioz, euskarazko tokiko telebistak lekurik gabe utzi dituen erabakiaren aurka jo du

JAIONE ASTIBIA

Baztango herriari elkartasuna adieraziz batera, «tokiko telebistak babesteko eskaria» egin dio Estatuko Gobernuari Aresoko Udalak, onartu berri duen mozio baten bidez, akor-

dio hori udal ordezkari guztiek aho batez hartutakoa izanik gainera.

Tokiko Telebista Digitalen banaketari eragiten dion plana egin eta onartu zuten Madrilen (Espainia) duela hilabete batzuk eta ondorioz, besteak bes-

te Baztango Xaloa Telebista, edo Bortzirietako Ttipi-tpapa Telebista moduko tokiko telebistak «emititzeko lekurik gabe» utzi, banaketa egiterakoan, «oinarri teknikoetan soilik erreparatu» omen zuten eta, mozioak dioenez. Horrela,

bada, banaketa egiterakoan, «Nafarroako iparraldeko tokiko telebistarik izaterik gabe utzi dute», kasualitatez, euskarazko tokiko telebistak dauden eremua eta «Euskararen Dekretua delakoan, eremu euskaldun izendatuta dagoen eremua». Horrengatik guztiatetik, eskatu ez baino, «esijitu» egin dio Estatuko Gobernuari, euskarazko «hau babesteko eta garatzeko neurriak har ditzan eta horren inguruan dauden lege eta dekretuak bete ditzan, komunikabidetan ere», tokiko telebistek ere kasu honetan kokatzen diren eremuagatik beragatik, gure hizkuntzaren aldeko lana egiten baitute, euskarazko babestu, erabili, sustatu eta egunerokotuz. Ezaugarri horietan ere erreparatu behar dela adierazten du mozioak.



## Elurrarekin jostetan

**ELURTEA** ▶ Herenegun goizez non-nahi dauden termometroei erreparatu zion jendeak gurean ere, aspaldi egin duen hotzik handiena egin zuen gau horretan eta: Leitzako herrigunean esaterako, -7°C. Baina izan ziren oraindik ere beherago jaitsitako puntuak: -9°C Arbillagako pinudiko txoko ospelean. Gorritzaran erreka koilatzeko ere! Haurrek, ordea, ez dute elurrarekin jostatzeko aitzakia handirik behar, egun hauetan guztietan. J. A.

KIROLA ▶

## Berria Txapelketatik at gelditu dira Aurrerakoak

Iruñeko Huarteren aurka jokaturako hiru partidua galdu egin ditu Altzako saioan

J. ASTIBIA

Aurrera pilota eskola, II. Berria Txapelketatik kanpo gelditu zen igandean, Iruñeko Huarteren aurka jokaturako kanporaketan, partidu guztiak galduta.

Huarteren alde, 66 eta 40 puntuaketaekin amaitu zen final zortzirenetako Altzako jardunaldia. Maila bakoitzean jokatu ziren partidua, Huarteren alderantz irauli ziren. Kadeteetan, Sagastibeltza-Madariagak jokatu zuten Aurreratik, Garralda-Beroizen

aurka eta 8-22ko emaitza egin zuten; jubeniletan, Iraola-Iriartek osatutako bikotea 16 tantorekin gelditu zen. Joldi-Litzoainean aurrean; helduetan ere tanteo bera lortu zuten Onsalo-Beteluk, Borda-Tabarrekin.

Aurtengoarekin bigarren aldiz parte hartu du txapelketa honetan Leitza eta Aresoko pilotariak ez ezik, eskualdekoak ere biltzen dituen Aurrerak, bertatik jakitera eman dutenez eta iaz ez bezala, aurtengo edizioan garaipen bat eskuratuta, gustura daude.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetalde.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion Klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga, J. M.J. Iraola 10 (Tolosa). 943 672 438  
**Erbiti.** Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoetalde.** 687 41 00 22  
anoetaldea@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitza@tolosaldeko hitza.info

LEITZA ▶

## Bihar NAN delako karneta egiteko aukera izanen da

Bihar goizeko 9:00etatik 12:00ak arte udaletxean tramitatu ahal izanen dute, aurrez 012 telefono zenbakira deitu eta hitzordua egina dutenek. Karnetaren ohiko berritzea egiteko, bi argazki, ale zaharra eta 6,44 euro behar dira. Datoren bat aldatu nahi izanez gero, helbidearen kasuan padroi agiria edota izen abizenen aldaketarako Jaiozte Agiri Literala behar dira.

LEITZA ▶

## Aurrerak ez zuen jokaterik izan igandean

Elurra zela eta, igandean ez zuen jokaterik izan Aurrerak, Aralar Mendiren aurka zuen partidua. Horrela, bada, honekin bi partidu ditu gutxiago jokaturako. Edozein moduz, jada jarrita ditzute horiek berreskuratzeko datak: apirilaren 10ean, asteburu honetako hori; apirilaren 17an, arbitroek egin galdialdiarengatik, Huarteren aurka jokatu ez zutena.



Horrelaxeko itxura zuen Arkixkil futbol zelaiak igandean. JAIONE ASTIBIA

iragarki laburrak ▶

LANA

**Sukaldaria.** Sukaldaria bat behar da asteburuetarako.  
Deitu 635 70 05 59 zenbakira.  
**Sukaldaria eta tabernaria.** Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera 943 682 154 zenbakira.  
**Kamarera.** Kamarera behar da arratsaldeetarako. 649 51 34 87.

ALOKAIRUAN

**Garajea.** lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. Deitu 609 43 59 07 edo 665 75 87 74 zenbakira.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 23a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Abotzur, Alegia, Alkiza, Alzco, Amerieta, Anorta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Iruia, Larramendi, Leizola, Leizola, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
bestenik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

04

hotzena

02

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Beauntza.** 16:00etatik 20:00etara tutorearen bisita eta Kutxanet mintegia  
16:00etatik 18:00etara.  
**Irura.** Udalak familia ugarientzako IBI kuotako laguntzak eskatzeko epea zabalik du martxoaren 18 arte.

**Tolosa.** Eskualdeko Korrika Batzordearen bilera 20:00etan AEK-Arramele eskalategian.

**Tolosa.** Gaztegunek antolatuta, DJ tailerra hasiko da 25ean 20:00etan. Izen-ematea, Kultur Etxean.

**Villabona.** Dr. Fleming eskolako Guraso Elkartearen hitzaldia 18:00etan Arroako psikomotrizitate gelan. Maribel San Sebastian gurasoen errudun sentimenduaz ariko da.

**Villabona.** Aizkardik Urduña-Garobel-Artziniega irteera du igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo lokalera azaldu bihar 21:00etatik 22:00etara.

### ZINE-KLUBAK

**Ibarra.** Sofia Coppolaren *Las virgenes suicidas* Gaztegunean gaur 21:45ean.

**Tolosa.** Kim Ki Duk-en *Primavera, verano, otoño, invierno... primavera* ikus ahal izango da bihar Leidor zinemaren 21:30ean.

# Eskulanari sariak

**DONOSTIA ▶** Gipuzkoako Merkatal Ganbarak lau artisau saritu ditu, tartean Jose Manuel Agirre tolosarra soinu tresnak egiteagatik



Jose Manuel Agirre dultzainari eta soinu tresna egile tolosarra bere lantokian. JOXEMI SAIZAR

### JOXEMI SAIZAR

Jose Manuel Agirre tolosarra soinu tresnak egiteagatik eta beste hiru esku-langile saritu ditu bere lanagatik Gipuzkoako Merkatal Ganbarak asteburuan Donostian egindako ekitaldi batean.

Julian Iruretagoiena espartingile azkoitiarrari artisautzari bizitza osoa eskaintzeagatik, Miguel Larrañaga gozogile bergararrari *relleno* eta *tostoi* ezagunak egiteagatik eta Leintz Gatzagako David Fernandez uhalgileari eman zizkieten beste sariak.

Sariak ematen Felix Iraola Ganbarako lehendakaria eta Angel Irastorza Foru Aldundiko Berrikuntza zuzendaria ari ziren. Fermin Leizaola etnologoak ere hitzaldia eman zuen. Aipatutako hiru hauekin batera, Jone Idiazabal, Kepa Oliveri, Jon Kortajarena eta

Juan Garmendia Larrañaga tolosarra izan dira epaimahaiko kideak.

### Familia eta musikariak

Agirrek eskerrak emateko garaian familiak lan honetan eman dion laguntza eta lanean jarraitzeko beharrezko diren musikariak —txistulariak, dultzainariak, perkusiojoleak, danborrariak, dantzari taldeak— aipatu zituen. «Nik adina txaloa merezi dute», esan zuen.

Diplomarekin batera, diru sari bat jaso zuten lau artisauak. Merkatal Ganbarak jakinarazi duenez, sari hauek ematen diren azken urtea izango da, ziklo bati amaiera emanez.

Jose Manuel Agirre pozik agertu da artisauen artean aukeratu dutelako. «Kultur alorrean planak modan dauden garai hauetan, ondo egongo litzateke erakundeek bizirik dagoen kultur ondarea mantentzeko zerbait egitea, adibidez musika riei laguntzak emanez. Alferri-kako lana da ondare hori galdu ondoren berreskuratu nahi izatea», adierazi dio Hitzari soinu tresna egileak.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Martin Balda (Alegia).  
Zorionak aitabxo.  
Etxekoak.



### ZORIONAK

Josu Azkue Arsuaga.  
Gaur 3 urte.  
Etxekoan partetik.



### AUPA JULEN ETA PELLO!

Ke pasa viejos?  
Billabonako gazteen partez animoak.  
Eutsi rediez!



### EUSKAL PRESOK BORROKAN - ELKARTASUN MEZUAK

Laster batean nahiko genuke/ denok gaude esperantzan,  
dantza elkarrekin egitea./Ibarrako enparantzan.  
Aupa zuek!  
Alurr dantza taldea

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarteak

Mesedez,  
argazkia bi egun  
lehenago ekarri.  
Mila esker!

HITZAREN egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheak  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA